



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

## Prensa-oharra

### **“GARRAIO POLITIKA PUBLIKOAREN EKARPENA EKONOMIA ETA ENPLEGU ARLOETAN, BIZKAIAN” AZTERLANAREN DATUAK JAKITERA EMAN DITU BGPk GAURKO KONTSEILU NAGUSIAN**

- **Azterlanaren arabera, Bizkaian bidaiarien garraioak 600 milioi euro baino gehiagoko inpaktu ekonomikoa du urtean, mugikortasun aurrezpenari dagokionez sistemaren ustiapen defizitak deskontatu eta gero (ibilgailuen jabetza indizea eta bidaien kostua).**
- **Bidaiarien garraioak Bizkaian 3.700 lanpostu zuzen eta zeharkako 500 lanpostu sortzen ditu, orotara 4.200.**
- **Horrez gain, baloratu gabeko beste inpaktu batzuk ere aipatu dira azterlanean, besteak beste: klima aldaketa, istripuak, ingurumen kostuak, Bizkaiko errepideen bide sistemetako auto-ilaren ondoriozko galera ekonomikoak, etab.**
- **Aipatutako aurrezkiak sarrera garrantzitsutzat jotzen dira tokiko ekonomian, familientzat erabiltzeko gastu arrunta izatearen ondorioz.**

*Bilbo, 2014ko otsailaren 18a.*

Bizkaian bidaiarien garraioak ekonomian eta enpleguan duen inpaktuari buruzko azterlan baten berri eman da BGPren (Bizkaiko Garraio Partzuergoa) gaurko Kontseilu Nagusian; txostena entitateak berak egin du.

Azterlanaren datu nabarmenenak honako hauek dira:

- **Garraioaren gaur egungo sistemek eragindako aurrezkiaren zenbateko garbia 605 milioi eurokoa da urteko**, betiere Bizkaian bidaiarien garraioaren sistema publikoaren ustiatzeko defizitak deskontatu eta gero. Ekarpene hori ibilgailu propioa ez erabiltzean aurreztutakotik dator, baita garraio bide pribatuak erabili beharrean garraio publikoa erabiltzean aurreztutakotik ere; horrez gain, ibilgailuak aparkatzean sortutako kostuek ere eragina dute.
- Horrenbestez, aztertutako balioek emandako **ratioa bidaiarien garraio publikoari egotzitako etekinak baino lau aldiz handiagoa da, zerbitzu horiek eskaintzeagatik administrazioek emandako defizitaren aldean.**
- Azterlanetik lortutako beste datu garrantzitsu bat **higiezinaren balioa handitzeari dagokio**, erosteko zein alokatzeko aukeretan. Azterlanean azaldutakoaren arabera, **balioa garraio azpiegituretako inbertsio kostua baino lau aldiz handiagoa da**, 11.000 milioi euroko emaitza garbia lortuz.
- Horrez gain, azterlanean ondorioztatuenez, bidaiarien garraio publikoa **gizarte kohesiorako elementu** bat da, garraio pribatua erabili ezin duten zenbait errenta mailentzat eskuragarria delako.
- Zenbait ekintza martxan jarri izana nabarmendu behar da; izan ere, giltzarri izan dira bidaiarien garraioaren bilakaerarako, eta, horrenbestez, aipatutako emaitzak lortu ahal izateko. Horien artean, honako hauek:



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

- Arrontegiko zubia eraikitzea: itsasadarraren bi ertzen arteko mugikortasun aldaketak eta elkarreragingarritasuna ahalbidetu zituen, ordura arte mugatuta zeuden erabilerak aldaraziz enplegu zentroan eta etxebizitzan.
- Txorierriko Korridorea eraikitzea: inguruan jardun ekonomikoa garatzea ekarri zuen.
- Bilboko Metroa eraikitzea: Irisgarritasun unibertsaleko elementu gisa, Bizkaian bidaiarien garraio zerbitzuetara jotzeko ereduak aldatzea ekarri zuen, erabilera dela-eta azpiegitura handi bihurtuta.
- **Enpleguari dagokionez, aipatutako azterlanaren arabera Bizkaian bidaiarien garraio publikoak 4.200 pertsonari ematen die lana; kopuru horretatik, 3.700 lanpostu zuzenekoak eta 500 lanpostu inguru zeharkakoak dira, gutxi gorabehera Bizkaiko BPGren % 7 hartzen duen sektore honetan.**
- Azterlanean, halaber, bidaiarien garraio publikoan eragina duten beste aldagai batzuk ere aipatzen dira, eta, kuantifikatu ez badira ere, zeharkako edota zuzeneko kostu nabarmenak dituzte. Honako hauek dira:

Garraio pribatua erabili ezin duten **familiek garraioa baliatu ahal izatea**. Horrenbestez, horrelako kasuetan garraio publikoa gizarte kohesiorako elementu bat dela ulertzen da.

**Jardun ekonomikoaren aglomerazioa** lurraldeko puntu askotan, ezinezkoa litzatekeena denboran iraunkorra den kalitatezko bidaiarien garraiorik gabe.

**Klima aldaketan erasatea**, horri dagokion kostuarekin.

**Kostuak murriztea istripu indizeari dagokionez**, errepideen sarean bidaiari kopurua gutxitzeagatik.

**Zirkulazioan, ilarak gutxitzea**, errepidean itxaronaldiak laburtuz, baita horren aldagai ekonomikoa lan ekoizpenean ere.

**Ingurumen kostuak**, esaterako kutsadura.

Horregatik guztiagatik, azterlanetik ondorioztatu denez, posible da bidaiarien garraio zerbitzuen ustiapen defizitaren gaineko estigma kentzea; izan ere, Bizkaiko gizarte multzoari eragindako etekin ekonomikoek aise gaintitzen dituzte horiek, eta administrazioek garraioan inbertitu eta gastatutako euro bakoitza laukoiztuta itzultzen zaio gizarteari; horrez gain, aurreztutako horri esker herritarrek diru gehiago dute erabilgarri, tokiko ekonomietan ekarpenak eginez bueltatu edo norberaren aurrezkietarako.